

San Anton eliza (Bilbao)

San Anton eliza XV. mendearen amaieran eraiki zen. Ez da Bilboko eliza zaharrena baina bai ezagunena, bere historia oso lotuta dagoelako hiriaren historiarekin; izan ere, merkatuaren, udaletxearen, kontsuletxearen eta sartzeko eta komunikazioetarako erabiltzen zen itsasadarraren gaineko zubiaren ondoan dago

Orubearen lehenengo okupazioak

Eliza eraiki baino ia hirurehun urte lehenago, merkatugaiantzako lonja edo biltegi bat zegoen bertan; horren azpian urez inguratutako haitz bat zegoen, itsasadarraren ibiaren ondoan. Gero eta abere-talde gehiago igarotzen zen itsadarretik, Gaztelako artilea eramanez, eta gero eta gehiago erabiltzen zen Bizkaiko Golkotik haratagoko merkataritzako enpresa berrien itsasontzientzako ainguraleku natural moduan.

1300. urtean Diego López de Harok Hiri-Gutuna eman zien Ibaizabaleko itsasertzean bizi zirenei eta, orduan, lonja zahar hori sortu berri zen hirian sartu zen. Hiria porturaino heltzen zen horma sendo batez inguratu zen, defentsa moduan eta hiritarrak uholdeetatik babesteko. 2002. urteko indusketa arkeologikoetan hormaren zimenduak aurkitu ziren eta aldare atzean ikus daitezke oraindik.

Hala ere, laster bota zen alde horretako horma San Antoni eskainitako eliza egin ahal izateko. Eliza 1433. urtean amaitu zen eta nabe bakarra zuen, oinplano angeluzuzeneko eta gangez estalitakoa. Aldare atzean, hormaren hondakinen gainean, lehenengo elizaren goiburuaren zimenduak ikus daitezke: poligonala eta hareharriko harlandu angeluzuzenez eraikita.

Oso denbora gutxi erabili zen hasierako eliza hori, XV. mende erdialdeko 50 urte eskas, 1478. urtean pentsatu zelako handitu egin behar zela gero eta biztanle gehiago zituen hiria hartzeko.

Eraikina

Engungo elizak estilo gotikoa dauka; hiru nabe mailakatu ditu, bost tartetan banatuta eta gurutzeriako-gangarekin estalita. Erdiko nabea ixten duten hormetan, eliza argitzen duten leihoen azpian, triforioa edo galeria altua eta irekia dago. Hain zuzen ere, ezaugarri horrek eliza gotikoen eskualdeko familia interesgarri batean sartzen du San Anton eliza beste hauekin batera: Bilboko Santiago, Portugaleta, Lekeitio, Gernika eta Deba.

Portada eta kanpandorrea, ordea, ez dira gotikoak. Portada arkitektura aldetik oso ederra da, errenazentista eta fantastikoa, apaingarri eta mezu ikonografiko ugarirekin. 1544. urtean diseinatu zuen Juan de Garita jaunak eta 1546 eta 1548 urteen artean egin zuen Guiot de Beaumont franko-flandestarra zuzendari zuen eskultore taldeak. Garaipen-arku moduan ageri da zutabe-pareen artean eta gainean, babestuz, portadako kapera dauka, hau da, 1559. urtean Juan de Láziz harginak estilo errenazentistan egin zuen balkoia plazara begira.

Kanpandorreko dekorazioa XVIII. mendeko barroko estiloko elementu bikaina da. Juan de Iturburu jaunak diseinatu zuen eta Manuel de Capelastegui jaunak kontratatu. 1775. urtean amaitu zen, Gerónimo de Argos menditarrak landutako Fedearen alegoria den "giraldilhoa" jartzean.

Eliza barruan hiru kapera daude -Leguizamón prebostearena, Recalderena eta Ibasetarena-; hauek XVI. mendearen bigarren herenean ireki ziren estilo gotiko-errenazentistarekin. Horietako kapera bi egun lotuta daude, eta hirutik bi burdin sarek daude itxita.

Sortu zenetik eta XIX. mendera arte elizaren barrualdea hilerri moduan erabili zen. 1726. urtean hilobien berrantolaketa garrantzitsua egin zen: lauak ziren estalkiak berritu eta leheneratu ostean nabeen lurrak egiteko erabili ziren.


Altzariak

Ezbehar bat baino gehiago eduki ostean, San Anton elizak altzarietako ia ondare guztia galdu du. Dena den, oraindik badu intereseko altzariren bat: Pietatearen zilarrezko erretaula, Beaumont-en lanarekin lotuta dagoena; XV. mende erdialdeko San Anton gotiko bat; eta San Antonio Paduako bat, rococoo eta ustez Juan Pascual de Mena eskultorearena dena. Azken eskultore hau Ibaseta kaperako San Sebastianaren autorea ere bada agian.

Erretaula nagusia Iñaki García Ergüin pintore garaikideak egindakoa da. Erdian Kristoren irudi hispano-flandestarra ageri da, gurutzatuta, eta ondoan San Pedro eta San Paulo apostoluen eskulturak daude; erliebe bi ere badaude, egun desagertuta dagoen erretaula erromanistaren zati bat osatzen dutena.

Koruaren azpian San Kosme eta San Damianen irudi bi daude -Bilboko zirujauen kofradiako titularrak eurak-. Irudiak 1664. urtean landu zituen Antonio de Alloitiz eskultoreak.

Testua: José Ángel Barrio Loza.
Iñaki García Camino.



San Anton eliza

Bilbao. (Erribera, 24.
Tf: 944 154 262).

Bisiten ordutegia:

Astegunetan:
10:30 - 12:30 eta 17:30 - 20:00
Jaiegunetan:
10:30 - 14:00 eta 17:00 - 20:00
(Kultua ematen ari den bitartean ezin izango dira elizak bisitatu).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- San Antoneko zubia (Erribera).
- Erriberako merkatya.
- Atxuriko Ospitale zaharra. (Atxuri, 1).
- Gizakundearen komentua.
- Arana Jauregia. (Belostikale, 1).